

Lankidetzarako agertokiak elkarrekin sortuz: Gazteria eta GGKE-ak erronka ekosozialei aurre egiten

2025eko urriaren 7a, asteartea • 17:00etatik 20:00etara

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxeko erabilera anitzeko gela
San Ignacio Loiolakoaren kalea 8, 2º • Gasteiz

Krisi ugari areagotu egin direla –besteak beste, klimarena, soziala, ekonomikoa, demokraziarena, osasunarena, migrazioena, zaintzena eta giza eskubideena–, eta diskurtso autoritario eta baztertzailerak aurrera egiten ari direla ikusirik, erantzun kolektibo, sortzaile eta ausartak eman behar ditugu. Erronka horiei aurre egiteko, funtsezko estrategia da, eta gero eta beharrezkoagoa gainera, munduaren ikuspegi eraldatzailea partekatzen dugun gazte-elkarteak eta GGKEek elkarrekin jardutea.

laz Zer egin dezakegu gure inguruneetan eta munduan justizia soziala sustatzeko? izeneko topaketa egin ondoren, edizio berri honetan elkarrekin ekinez aurrera egitea proposatzen dugu. Elkarrekin, laborategi-formatuan, Arabako gazte-elkarteen eta GGKEen arteko lankidetzaguneak eraikitzea bilatuko dugu, egungo erronka ekosozial handiei aurre egiteko.



Helburuak

- # Elkar lanean aritzeko gakoei buruz hausnartzea.
- # Lankidetzarako agertokiak elkarrekin sortzea.

Norentzat

Garapenerako GKEak eta gazte-elkarteak (dinamizatzaileak, teknikariak, boluntarioak).

Ez da beharrezkoa aurreko topaketetan parte hartu izana.

Izen-emateak

Irailaren 30ra arte, egun hori barne, ondoren datorren estekaren bidez.

<https://forms.gle/Wrn47mDus7DqWqN88>

☎ 945 280 745 • araba@ongdeuskadi.org